2. Kontratistak bere gain hartuko du kontratua exekutatzea, SPKLren 239. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratistari dagokion kalte-ordainari kalterik egin gabe, ezinbesteko kasuetan eta kontratistak zuhurtziarik gabe jokatu ezean dagokiona.

2. El contratista realizará la ejecución del contrato a su riesgo y ventura, sin perjuicio de la posible indemnización que corresponda al contratista según lo esta blecido en el artículo 239 de la LCSP, en los casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista.

3. Kontratua gauzatzeko egin beharreko operazioen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordainduko ditu kontratistak.

3. El contratista indemnizará todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.

Kontratua enpresa batekin baino gehiagorekin batera gauzatzen bada, guztiek izango dute erantzukizun horien erantzukizun solidarioa.

Si el contrato se ejecutara de forma compartida con más de una empresa, todos responderán solidariamente de estas responsabilidades.

4. Kontratistak nahitaez bete behar du kontratua gauzatzeko epea, karatulako **5. atalean** aurreikusitako moduan.

4. El contratista está obligado a cumplir el plazo de ejecución del contrato en los términos previstos en el **apartado 5** de la carátula.

5. Obrak egiten diren bitartean eta berme- epea bete arte, kontratista izango da eraikuntzan antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

5. Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía, el contratista es responsable de los defectos que en la construcción puedan advertirse.

Udalak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren iritziz obraren zatiren bat behar bezala egin ez bada, enpresa kontratistak obraren zati hori berregin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta obra jaso ondoren ikusi.

Si a juicio de la dirección facultativa designada por el Ayuntamiento, hubiera alguna parte de la obra ejecutada deficientemente, la empresa contratista deberá rehacerla sin derecho a indemnización de ningún género, aunque se hubiera apreciado después de la recepción.

Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, horiek onartzeko proposamena egin diezaioke Udalari, eta, ondorioz, prezioak jaitsi. Kasu horretan, enpresa kontratistak Udalak ezarritako prezio beheratuak onartu beharko ditu, non eta ez duen nahiago unitate akastunak eraistea eta berreraikitzea, kontura eta kontratuaren baldintzen arabera.

Si la dirección estima que las unidades de obra defectuosas o que no cumplen estrictamente las condiciones del contrato son, sin embargo, admisibles, puede proponer al Ayuntamiento su aceptación, con la consiguiente rebaja en los precios. La empresa contratista, en tal caso, queda obligada a aceptar los precios rebajados fijados por el Ayuntamiento, salvo que prefiera demoler y reconstruir las unidades defectuosas por cuenta y con arreglo a las condiciones del contrato.

SPKLren 315.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratistaren erantzukizuna izango dira obrak egin edo ustiatu bitartean Udalari zein hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak, horiek proiektuaren akats eta gabezia teknikoengatik, edo proiektuari egotz dakizkiokeen akats materialengatik, omisioengatik eta legezko edo erregelamenduzko manuen arau-hausteengatik eragiten direnean. Salbuetsita geratzen dira Udalaren jarduketa edo agindu baten ondorio zuzen eta berehalakoak diren akatsak.

Serán responsabilidad del contratista los daños y perjuicios que durante la ejecución o explotación de las obras se causen tanto al Ayuntamiento como a terceros, por defectos e insuficiencias técnicas del proyecto o por los errores materiales, omisiones e infracciones de preceptos legales o reglamentarios en que el mismo haya incurrido imputables a aquél, con arreglo a lo establecido en el artículo 315.2 de la LCSP, con excepción de los defectos que se puedan apreciar que sean consecuencia directa e inmediata de una actuación u orden del Ayuntamiento.

6. Kontratistaren konturakoa eta erantzukizuna izango da, kontratazio organoak berak kudeatzea erabaki ezean, lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea.

6. Será de cuenta y responsabilidad del contratista, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo, la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisos para la correcta ejecución de los trabajos.

7. Kontratistak, bere erantzukizun esklusibopean, bete beharko ditu arlo hauetan indarrean dauden xedapenak: fiskalitatea, ingurumenaren babesa, hondakin-kudeaketa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra, baita langileen soldata-baldintzak betetzeko betebeharra ere, aplikatzekoa den sektore-hitzarmen kolektiboaren arabera. Halaber, kontratistak bere kargura izan beharko ditu kontratuaren xedea betetzeko behar diren langileak, eta horiei dagokionean, ondorio guztietarako, enpresaburutzat joko da.

7. El contratista deberá cumplir, bajo su exclusiva responsabilidad, las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, gestión de residuos, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de las personas con discapacidad, y la obligación de contratar a un número o porcentaje específico de personas con discapacidad, así como la obligación de cumplir con las condiciones salariales de los trabajadores conforme al convenio colectivo sectorial de aplicación, debiendo tener a su cargo el personal necesario para la realización del objeto del contrato, respecto del que ostentará, a todos los efectos, la condición de empresario.

Apirilaren 6ko 3/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Kon-tratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzen dituenak, xedatutakoarekin bat, ohartarazten da kontratua bete egin behar dela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, beti ere lan-arloan, Segurantza Sozialaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública, se advierte de que el contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

Kontratistak kontratua gauzatzeko erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan-loturarik izango Irurago Udalarekin. Langile horiek kontratistaren zuzendaritzaren esku bakarrik geratuko dira, hargatik eragotzi gabe kontratazio-araudiak kontratazio-organoari aitortzen dizkion ahalmenak.

El personal que el contratista destine a la ejecución del contrato no tendrá vinculación laboral ni de cualquier otro tipo con el Ayuntamiento de Irura. Este personal quedará exclusivamente bajo el poder de dirección del contratista, sin perjuicio de las facultades que la normativa de contratación reconoce al órgano de contratación.

Ondorioz, kontratistari dagokio kontratuaren zuzendaritza eta kudeaketa, eta kontratistak bere gain hartzen ditu benetako enpresa-arriskua eta langileekiko zu zendaritza- eta kontrol-ahalmenak. Beraz, zeregin horiek ez dagozkio erakunde kontratatzaileari, zeinak kontrol- ahalmenak baino ez baititu, eta hori guztia kontratua behar bezala gauzatzeko alderdien arteko lankidetza-harremanak alde batera utzita.

En consecuencia, la dirección y la gestión del contrato corresponden al contratista, de forma que éste asume un riesgo empresarial verdadero y las facultades de dirección y control respecto de los trabajadores, por lo que estas tareas no corresponden a la entidad contratante, que únicamente tiene facultades de control, y todo ello con independencia de las relaciones de colaboración entre las partes para que el contrato se ejecute correctamente.

9. Kontratistak datuak babesteko betebeharrak bete beharko ditu, agiri honen 27. klausulan ezarritakoaren arabera.

9. El contratista deberá cumplir con sus obligaciones en materia de protección de datos, de conformidad con lo establecido en la cláusula 27 de este pliego.

10. Kontratistak, SPKLren 202. artikuluaren arabera, karatulako **16. atalean** ezarritako baldintza bereziak bete beharko ditu kontratua gauzatzeari dagokionez, eta, hala badagokio, kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei baldintza horiek bete-tzeko eskatu beharko die.

10. El contratista está obligado a cumplir con las condiciones especiales en relación con la ejecución del contrato que, de conformidad con el artículo 202 de la LCSP, se hayan establecido en el **apartado 16** de la carátula, así como a instar, en su caso, a todos los subcontratistas que participen en la ejecución del contrato a cumplirlas igualmente.

Nolanahi ere, karatulako **17. atalaren** arabera, kon-tratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak, tratamenduaren arduradunaren kontura, datu pertsonalak tratatzea, kontratua gauzatzeko baldintza berezia izango da 27. klausulan ezarritako betebeharra, hau da, kontratistak datuak babesteari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharrekoa.

En todo caso, siempre que, de acuerdo con el **apartado 17** de la carátula, la ejecución del contrato implique el tratamiento de datos personales por el contratista por cuenta del responsable, será condición especial de ejecución la obligación establecida en la cláusula 27 de cumplimiento por el contratista de la normativa nacional y de la Unión Europea sobre protección de datos.

11. Baldin eta, karatulako **17. atalaren** arabera, kontratua gauzatzeak berekin badakar kontratistak datu pertsonalak arduradunaren kontura tratatzea, kontratistak nahitaez jakinarazi beharko du kontratuaren iraunaldian edozein aldaketa gertatzen bada baldintza-agiri honen 43.1.M klausulan aipatzen den deklarazioan emandako informazioan. Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLren 211.1.f) artikuluaren ondorioetarako.

11. Cuando, de conformidad con el **apartado 17** de la carátula, la ejecución del contrato implique el tratamiento de datos personales por el contratista por cuenta del responsable, el contratista está obligado a comunicar cualquier cambio que se produzca a lo largo de la duración del contrato de la información facilitada en la declaración a la que hace referencia la cláusula 43.1.M de este pliego. Esta obligación tiene el carácter de obligación contractual esencial a los efectos del artículo 211.1.f) de la LCSP.

12. Kontratistak Udalari eman beharko dio, honek aldez aurretik eskatuta, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko moduari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar duen informazio guztia.

12. El contratista está obligado a suministrar al Ayuntamiento, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento por éste de las obligaciones previstas en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

13. Kontratuaren xedearen izaerak horretarako aukera ematen badu, Udalak hasieratik eskuratuko du ondasunen edo produktuen jabetza intelektuala edo industriala, eta kontratistaren erantzukizuna izango da berari egotz dakizkiokeen jarduketengatik jabetza eskubide horren aurka sor daitezkeen kalteak.

13. En los casos en que la naturaleza del objeto del con trato lo permita, el Ayuntamiento adquirirá la propiedad intelectual o industrial de los bienes o productos desde su inicio, siendo responsabilidad del contratista los perjuicios que se puedan derivar contra tal derecho de propiedad por actuaciones a él imputables.

14. Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren erregimena, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta beste lege-testu hauetan garatua: Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, eta horiek garatzen dituzten arauak, besteak beste.

14. Respecto a la actividad lingüística, el presente contrato está sujeto al régimen de doble oficialidad de la intervención establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma de Euskadi y desarrollado en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, General de Normalización del Uso del Euskera, en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi.

Irurako udala

48. KONTRATISTAREN KONTURAKO GASTUAK ETA ZERGAK

1. Kontratistaren kontura izango dira kontratua eskritura publiko bihurtzeko gastuak, baita kontratatutako prestazioa betetzeko enpresak egin behar dituen gastuak ere, besteak beste, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, entseguak, garraioa eta joan- etorriak, bere kargura dituen teknikarien eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak, eta agiri honetan aurreikusitako gainerakoak.

2. Kontratistaren konturakoak izango dira zergak aukerako zuinketa-lanen tasak, materialen eta obra unitateen saiakuntzak eta analisiak egiteko gastuak, edo horiei buruzko berariazko txostenak, obraren ikuskapena eta likidazioa, eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren beste batzuk.

Saiakuntzak egiaztatzeari eta materialak eta obra unitateak aztertzeari dagokionez, Kontratistaren konturako gastuen gehieneko zenbateko obraren aurrekontuaren edo proiektuan xedatzen denaren %1 izango da, karatulako beste ehuneko edo zenbateko bat adierazten ez bada.

Hala ere, ez dute muga hori izango eta kontratistaren kontura izango dira, oso-osorik, obraren kalitatean eta gauzatzean izandako akatsen ondorioz egin beharreko kontrolen ondoriozko gastuak.

3. Kontratistaren kontura izango dira obrak gauzatzean erabiltzaileei eragiten dieten iragarkiak argitaratzeko gastuak.

4. Kontratistaren kontura izango dira obrak gauzatzean kontratistak erabilitako hornidura elektrikoaren ondoriozko gastuak.

5. Kontratistaren kontura izango da obrak gauzatzean sortutako hondakinen kudeaketaren kostua.

48.- GASTOS E IMPUESTOS POR CUENTA DEL CONTRATISTA

1. Correrán por cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública así como los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento de la prestación contratada, incluidos los generales, financieros, de seguros, tasas, fianzas, ensayos, transporte y desplazamientos, honorarios y dietas del personal técnico y auxiliar a su cargo y los demás previstos en este pliego.

2. Serán de cuenta del contratista los impuestos, las tasas de los trabajos facultativos de replanteo, los gastos de la realización de ensayos y análisis de materiales y unidades de obra o de informes específicos sobre los mismos, de inspección y de liquidación de la obra y otros que sean de aplicación según las disposiciones vigentes.

El límite máximo de los gastos a cuenta del contratista en relación conla verificaciónde los ensayos y análisis de materiales y unidades de obra, asciende a una cuantía máxima equivalente al 1% del presupuesto de la obra, o al que se disponga en el proyecto, salvo que se indique otro porcentaje en la carátula.

No obstante, no tendrán tal limitación y correrán íntegramente por cuenta del contratista, los gastos derivados de controles que sea necesario realizar como consecuencia de defectos en la calidad y en la ejcución de la obra.

3. Serán de cuenta del contratista los gastos de publicación de los anuncios de afecciones a los usuarios con motivo de la ejecución de las obras.

4. Serán de cuenta del contratista los gastos derivados del suministro eléctrico utilizado por el contratista durante la ejecución de las obras.

5. Serán de cuenta del contratista el coste de la gestión de residuos producidos con motivo de la ejecución de las obras.

Irurako udala

49. NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTURAKO ORDAINKETAK

1. Proiektuaren agirien arabera egiten duen obra baino ez zaio ordainduko kontratistari.

2. Kontratua formalizatu arte, ezin izango da inolako ziurtagiririk egin eta, ondorioz, ordainketarik egin.

3. Obra zuzendaritzak hilero neurtuko ditu egindako lanak, eta kontratista neurketa horietan egon daiteke. Obrak edo obra zatiak ondoren eta behin betiko ezkutuan utzi behar badira, kontratistak behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko du, zuzendaritzak dagozkion neurketak egin eta datuak hartu ahal izan ditzan. Horretarako, horiek definitzen dituzten planoak egin beharko ditu, eta kontratistak izenpetuko du horien adostasuna. Aldez aurretik abisatu ezean, kontraegileari baitagokio horren froga egitea, udalak gaiari buruz hartutako erabakiak onartu beharko ditu.

4. Obra mota bakoitzerako, neurketei dagokien zatian proiektuan adierazitakoa hartuko da neurketa-unitatetzat. Neurketa amaitutakoan, zuzendaritza fakultatiboak hilero idatziko du jatorriaren arabera balionetsitako zerrenda.

49. MEDICIONES, VALORACIÓN Y ABONOS A CUENTA

1. Sólo se abonará a la contratista la obra que realice conforme a los documentos del proyecto.

2. No podrá emitirse ninguna certificación y, en consecuencia, realizarse ningún pago hasta que se haya formalizado el contrato.

3. La dirección de la obra realizará mensualmente la medición de los trabajos efectuados, pudiendo la contratista presenciar la realización de las mismas. Para las obras o partes de obra cuyas dimensiones y características hayan de quedar posterior y definitivamente ocultas, la contratista está obligada a avisar con la suficiente antelación, a fin de que la dirección pueda realizar las correspondientes mediciones y toma de datos, levantando los planos que las definan, cuya conformidad suscribirá la contratista. A falta de aviso anticipado, cuya prueba corresponde a la contratista, queda ésta obligada a aceptar las decisiones del Ayuntamiento sobre el particular.

4. Para cada clase de obra se adoptará como unidad de medida la señalada en el proyecto, en la parte correspondiente a las mediciones. Terminada la medición, por la dirección facultativa se procederá mensualmente a la redacción de la relación valorada al origen.

5. Gauzatutako obra baloratzeko, obra- unitate bakoitzerako proiektuaren unitate prezioen koadroan agertzen diren exekuzio materialaren prezioak eta kontratuan aurreikusi gabeko obra-unitate berrien prezioak hartuko dira kontuan, behar bezala baimendu badira, eta obra akastunak, pilatutako materialak, oroharreko par-tidak eta obran jarritako ekipoaren konturako ordain-ketak egiteko baldintza-agirietan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

5. La obra ejecutada se valorará a los precios de ejecución material que figuren en el cuadro de precios unitarios del proyecto para cada unidad de obra y a los precios de las nuevas unidades de obra no previstas en el contrato que hayan sido debidamente autorizados y teniendo en cuenta lo prevenido en los correspondientes pliegos para abonos de obras defectuosas, materiales acopiados, partidas alzadas y abonos a cuenta del equipo puesto en obra.

6. Aurreko paragrafoan adierazitako moduan lortutako balorazioaren emaitzari aurrekontua osatzeko hartutako APKLEOren 131. artikuluan adierazitako ehune koak gehituko zaizkio, eta ateratzen den kopurua adjudikazio-koefizientearekin biderkatuko da. Horrela, hileko zerrenda baloratua lortuko da, eta horrek hileko ziurtagiria egitea ekarriko du. Ziurtagiri hori Udalak emango du, emandako hilabetearen hurrengo HAMAR (10) EGUNETAN.

6. Al resultado de la valoración, obtenido en la forma expresada en el párrafo anterior, se le aumentarán los porcentajes señalados en el artículo 131 del RGLCAP adoptados para formar el presupuesto y la cifra que resulte se multiplicará por el coeficiente de adjudicación, obteniendo así la relación valorada mensual, que dará lugar a la certificación mensual, que se expedirá por el Ayuntamiento en los DIEZ (10) DÍAS siguientes al mes que corresponda.

7. Ondorio horietarako, Udalak adjudikazio-koefizientea behin betiko finkatuko du proposamenik onuragarriena adjudikatzeko ebazpenean.

7. A estos efectos, en la resolución por la que se otorgue la adjudicación a la propuesta considerada más ventajosa, el Ayuntamiento fijará definitivamente el coeficiente de adjudicación.

Adjudikazio koefizientea enpresa adjudikaziodunak bere proposamenaren eskaintza ekonomikoan adierazitako prezioaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko erlaziotik ateratzen dena izango da.

El coeficiente de adjudicación será el que resulte de la relación entre el precio señalado por la empresa adjudicataria en la oferta económica de su propuesta y el presupuesto base de licitación.

Lanak egin bitartean, Udalak onartutako proiektuan agertzen diren prezio unitarioak aplikatuko dira, enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikoaren ondoriozko adjudikazio-koefizientearen eraginpean.

Los precios unitarios que regirán durante la ejecución de los trabajos serán los que figuran en el proyecto aprobado por el Ayuntamiento, afectados por el coeficiente de adjudicación resultante de la oferta económica realizada por la empresa licitadora.

8. Oroharreko prezioan adierazitako partidak baldintza tekniko zehatzen agirian adierazitakoaren arabera baloratu eta ordainduko dira. Halakorik ezean, APKLEOren 154. artikuluan xedatutakoa beteko da.

8. Las partidas señaladas en el presupuesto a tanto alzado, se valorarán y abonarán conforme se indica en el pliego de prescripciones técnicas particulares. En su defecto, se estará a lo dispuesto en el artículo 154 del RGLCAP.

9. Justifikatu beharreko oroharreko partidak ordaintzeko, eta jarduketak obra-unitateak aplikatzeko ematen ez direnean, Udalak hirugarrenek fakturatzeko aukera hartu ahal izango du kontuan, obren zuzendaritza fakultatiboak aldez aurretik baimenduta eta babestuta. Fakturatutako zenbateko likidoa enpresa kontratistak ordaindu eta Udalak itzuliko du, eta hurrengo hilabetean egiten den obra ziurtagirian sartuko da. Zenbateko hori % 13 igoko da gastu orokorren kontzeptuan, eta ez da beste igoerarik edo adjudikazio-beherapenik izango.

9. Para el abono de las partidas alzadas a justificar, y cuando las actuaciones no se presten a la aplicación de unidades de obra, podrá considerarse por el Ayuntamiento la posibilidad de facturación por terceras partes previamente autorizada y respaldada por la dirección facultativa de las obras. El importe líquido facturado será abonado por la empresa contratista y reembolsado por el Ayuntamiento incluyéndolo en la certificación de obra que se expida al mes siguiente. Dicho importe se incrementará aplicando un porcentaje del 13 % en concepto de gastos generales y no estará sujeto a ningún otro incremento ni a la baja de adjudicación.

10. Baloratutako zerrenda tramitatzearekin batera, obraren zuzendaritzak ale bat bidaliko dio kontratistari, ados egon dadin edo eragozpenak izan ditzan, eta kontratistak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu, jasotzen duenetik HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO epean gehienez ere.

10. Simultáneamente a la tramitación de la relación valorada la dirección de la obra enviará un ejemplar a la contratista a efectos de su conformidad o reparos, pudiendo esta formular las alegaciones que estime oportunas en un plazo máximo de DIEZ (10) DÍAS HÁBILES a partir de su recepción.

Epe hori igaro eta kontratistak alegaziorik aurkezten ez badu, baloratutako zerrendarekin ados dagoela ulertuko da. Bestela, eta kontratistaren alegazioak osorik edo zati batean onartzen badira, alegazio horiek kon-tuan hartuko dira baloratutako hurrengo zerrenda idazterakoan edo, hala badagokio, azken ziurtagirian edo kontratuaren likidazioan.

Transcurrido este plazo sin formular alegaciones por parte de la contratista se considerará otorgada la conformidad a la relación valorada. En caso contrario y de aceptarse en todo o parte las alegaciones de la contratista, éstas se tendrán en cuenta a la hora de redactar la próxima relación valorada o, en su caso, en la certificación final o en la liquidación del contrato.

11. Egiten diren ziurtagiriak eta kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoak konturako ordainketatzat hartuko dira, eta ez dute ekarriko, inola ere, obrak onartzea eta jasotzea, gauzatutako obren azken ziurtagiriaren eta kontratuaren likidazioaren kontura. Konturako ordainketa horietan, SPKLren 198.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa beteko da.

11. Las certificaciones que se expidan y las cantidades que se abonen al contratista tendrán el carácter de abonos a cuenta y no supondrán en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprenden, a resultas de la certificación final de las obras ejecutadas y a cuenta de la liquidación del contrato. En estos abonos a cuenta se observará lo dispuesto en el artículo 198.2 párrafo segundo de la LCSP.

12. Kontratistak, **karatulako 24.bis.** paragrafoan adierazitako baldintzen arabera, pilatutako materialen eta instalazio edo ekipoen konturako ordainketak jasotzeko eskubiderik ez du izango.

12. El contratista, según consta en el **apartado 24** de la carátula, no tendrá derecho a percibir abonos a cuenta por materiales acopiados y por instalaciones o equipos.

13. Adjudikaziodunak jaulkitako fakturak formatu elektronikoan egingo dira, ondasunak entregatu eta jaso diren egunetik HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epean, eta "Gipuzkoako Fakturen Sarrera-Puntu Orokorraren" (FeSPO) bitartez aurkeztuko dira. Puntu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dago kokatua, haren bitartez emango baitu Udalak zerbitzu hori (https://www.ef4ktur.eus/hasiera/). Aurkeztutako faktura bakoitzean, kontratistak kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoaren identifikazioa jaso beharko du, baita kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa ere, karatulako **24. atalean** emandako datuen arabera.

13. Las facturas expedidas por el adjudicatario se realizarán en formato electrónico, en el plazo de TREINTA (30) DÍAS NATURALES desde la fecha de entrega y recepción efectiva de la totalidad de la prestación, y se presentarán a través del "Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa" (PGEFe) ubicado en la Sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, quien prestará dicho servicio a este Ayuntamiento (https://www.ef4ktur.eus/hasiera/). El contratista deberá hacer constar en cada factura presentada la identificación del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, así como la identificación del órgano de contratación y del destinatario, conforme a los datos facilitados en el **apartado 24** de la carátula.

14. Udalak HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epean ordaindu beharko du prezioa, emandako hornidurak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik kontatzen hasita, eta, berandutzen bada, HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epe hori betetzen denetik, berandutze- interesak eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean, operazioetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen horretan, aurreikusitako kobrantza-kostuen kalteordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari.

14. El Ayuntamiento tendrá obligación de abonar el precio dentro de los TREINTA (30) DÍAS NATURALES siguientes a la fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad de los suministros prestados con lo dispuesto en el contrato, y si se demorase, deberá abonar a la contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de TREINTA (30) DÍAS NATURALES, los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

15. Nolanahi ere, enpresa kontratistak ez badu betetzen HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epean faktura administrazio-erregistroan aurkezteko betebeharra, interesen sortzapena ez da hasiko faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURAL igaro arte, Udalak, hala badagokio, faktura ontzat emateke eta ordaintzeke.

15. En todo caso, si la empresa contratista incumpliera el plazo de TREINTA (30) DÍAS NATURALES para presentar la factura ante el registro administrativo, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos TREINTA (30) DÍAS NATURALES desde la fecha de presentación de la factura en el registro correspondiente, sin que el Ayuntamiento haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.

Hala ere, luzatzen diren ziurtagirietan ez da kontatuko legez aurreikusitako epea, kontratua onartzen den egunetik, baizik eta hitzartutako baldintzen eta onartu tako lan- programen arabera egin beharko litzatekeen geroagoko epetik. -

Ello no obstante, en las certificaciones que se extiendan excediendo del importe de las anualidades que rijan en el contrato no se contará el plazo legalmente previsto desde la fecha de su aprobación, sino desde aquella otra posterior en la que con arreglo a las condiciones convenidas y programas de trabajo aprobados deberían producirse.

16. SPKLren 243.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Udalak obra-ziurtagiriak edo obra-kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu, ondasunak entregatu eta hogeita HAMAR (30) EGUNEKO epean.

16. Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 243.1 de la LCSP, el Ayuntamiento deberá aprobar las certificaciones de obra o los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de obras dentro de los TREINTA (30) DÍAS siguientes a la entrega efectiva de los bienes.

50. ARAU-URRATZEAK ETA ZIGOR-ERREGIMENA

50. INCUMPLIMIENTOS Y RÉGIMEN DE PENALIDADES

1. Kontratazio-organoak, SPKLren 192. Eta 193.artikuluetan ezarritakoarekin bat, zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez- betetzeagatik:

1. El órgano de contratación, con sujeción a lo establecido en los artículos 192 y 193 de la LCSP, podrá imponer penalidades a la empresa contratista por los incumplimientos que se indican a continuación:

A. Kontratua gauzatzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkioken arrazoiengatik, berandutzan erori bada epe totala edo partziala betetzeari dagokionez, Udalak aukeran erabaki ahalko du aukera hauen artean: kontratua deuseztatzea; egunen araberako zigorrak ezartzea, kontratuko prezioko 1.000 euroko bakoitzeko 1 euroko proportzioan, BEZik gabe; edo karatulako **20. atalean** ezarritako zigorrak ezartzea.

Berandutzagatiko zigorrak kontratuko prezioaren %5era iristen diren bakoitzean, BEZ kanpo utziz, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua deuseztatzeko edo zigor berriak ezarriz hura burutzen jarrai dezatela erabakitzeko.

B. Ez-betetze partziala edo gaizki betetzea

B.1. Kontratistak kontratuaren xedea behar bezala betetzen ez badu, kontratazio-organoak ez-betetzearen larritasunaren araberako zigorra ezarri ahal izango du. Horietako bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa, BEZik gabe, ezta guztizko zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 50 baino handiagoa ere.

a. Kontratistak ez badu betetzen kontratua gauzatzeko behar beste giza baliabide edo baliabide material erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa (agiri honetako 13.2. klausula eta karatulako 4. atala), kontratazio-organoak honako ondorio hauetakoren bat aukeratu beharko du:

i. Adjudikaziodunari ez-betetzearen larritasunaren araberako zigorra ezartzea, gehienez ere kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZik Gabe.

A. Incumplimiento de los plazos de ejecución del contrato

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total o parcial, el Ayuntamiento podrá optar indistintamente por la resolución del contrato, por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 1 euro por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido, o por las penalidades que se hubieren establecido en el **apartado 20** de la carátula.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5% del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

B. Incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso

B.1. En el caso de que el contratista cumpliera defectuosamente el objeto del contrato, el órgano de contratación podrá imponer una penalidad proporcional a la gravedad del incumplimiento. La cuantía de cada una de ellas no podrá ser superior al 10 % del precio del contrato, IVA excluido, ni el total de las mismas superar el 50 % del precio del contrato.

a. Ante el incumplimiento por el contratista del compromiso de dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello (cláusula 13.1 de este pliego y apartado 10 de la carátula) el órgano de contratación deberá optar por alguna de las siguientes consecuencias:

i. La imposición al adjudicatario de una penalidad proporcional a la gravedad del incumplimiento, en una cuantía que no podrá ser superior al 10% del oprecio del contrato, IVA excluido.

ii. Kontratua suntsiaraztea, baldin eta karatulako **16 atalean** funtsezko kontratu-betebehartzat jo bada.

ii. La resolución del contrato, en el caso de que se le haya atribuido carácter de obligación contractual esencial en el **apartado 16** de la carátula.

b. Kontratistak ez baditu betetzen kontratua gauzatzeko baldintza bereziak (agiri honetako 47.11 klausula eta **karatulako 16**. atala), kontratazio-organoak honako ondorio hauetako bat aukeratu beharko du:

b. Ante el incumplimiento por el contratista de las condiciones esenciales de ejecución del contrato (**apartado 16** de la carátula) el órgano de contratación deberá optar por alguna de las siguientes consecuencias:

i. Adjudikaziodunari ez-betetzearen larritasunaren araberako zigorra ezartzea, gehienez ere kontratua-ren prezioaren % 10ekoa , BEZik gabe.

i. La imposición al adjudicatario de una penalidad proporcional a la gravedad del incumplimiento, en una cuantía que no podrá ser superior al 10 % del precio del contrato, IVA excluido.

ii. Kontratua suntsiaraztea, baldin eta karatulako **16. atalean** funtsezko kontratu-betebehartzat jo badira.

ii. La resolución del contrato, en el caso de que les haya atribuido carácter de obligación contractual esencial en el **apartado 16** de la carátula.

iii. Ez-betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko arrazoitzat tipifikatzen, arau-hauste larritzat jo ahalko da karatulako, SPKLren 71.2.c) artikuluan ezarritako ondorioetarako.

iii. Cuando el incumplimiento no se tipifique como causa de resolución del contrato, el mismo podrá ser considerado como infracción grave a los efectos establecidos en el artículo 71.2.c) de la LCSP.

c. Prestazioa betetzen ez bada edo gaizki betetzen bada adjudikazio-irizpideak zehazteko kontuan hartu diren ezaugarriei eragiten dien arrazoiren batengatik, kontratazio-organoak honako ondorio hauetakoren bat aukeratu ahal izango du:

c. Ante el incumplimiento o el cumplimiento defectuoso de la prestación que afecte a características de la misma que se hayan tenido en cuenta para definir los criterios de adjudicación, el órgano de contratación podrá optar por alguna de las siguientes consecuencias:

i. Adjudikaziodunari ez-betetzearen larritasunaren araberako zigorra ezartzea, gehienez ere kontratua-ren prezioaren % 10ekoa , BEZik gabe.

i. La imposición al adjudicatario de una penalidad proporcional a la gravedad del incumplimiento, en una cuantía que no podrá ser superior al 10 % del precio del contrato, IVA excluido.

ii. Kontratua suntsiaraztea, baldin eta karatulako **16. atalean** funtsezko kontratu-betebehartzat jo badira.

ii. La resolución del contrato, en el caso de que les haya atribuido carácter de obligación contratual esencial en el **apartado 16** de la carátula.

B.2. Kontratistak, berari egotz dakizkioekeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen betearazpena partzialki bete ez badu, kontratazio-organoak, SPKLren 192.2 artikuluarekin bat etorriz, aukeran izango du, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiaraztea edo karatulako **20. atalean** aurreikusitako zigorrak ezartzea.

B.2. Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, el órgano de contratación podrá, de conformidad con el artículo 192.2 de la LCSP, optar, atendidas las circunstancias del caso, por su resolución o por imponer las penalidades previstas en el **apartado 20** de la carátula.

B.3. Adjudikaziodunari ez-betetzearen larritasunaren araberako zigorra ezarriko zaio, gehienez ere kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZik gabe, honako kasuetan: kontratua gauzatzean kontratistak ez badu betetzen Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzen-bide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo nazi-oarteko ingurumen-, gizarte- eta lan-zuzenbideko xedapenetan ezarritako ingurumen-, gizarte- edo lan- arloko betebeharrak, Estatua lotzen dutenak eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean ezarritakoak; eta, batez ere, soldatak behin eta berriz betetzen ez badira edo horien ordainketan atzeratzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzen badira, baldin eta ez- betetze horiek larriak eta dolozkoak badira.

B.3. El incumplimiento por el contratista en la ejecución del contrato de las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral establecidas en el derecho de la Unión Europea, el derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de derecho internacional medioambiental, social y laboral que vinculen al Estado y en particular las establecidas en el Anexo V de la LCSP, y, en especial, los incum-plimientos o los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales infe-riores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, dará lugar, de conformidad con el artículo 201 de la LCSP, a la imposición de las pena-lidades a que se refiere el artículo 192 de la LCSP, cuya cuantía no podrá ser superior al 10 % del precio del contrato.

C. SPKLren 215.2 artikuluan azpikontratazioaren gainean ezarritako baldintzak ez betetzea

C. Incumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 215.2 de la LCSP en relación a la subcontratación

Kontratistak, hala egokituz gero, KAPA honetan ezarri diren azpikontratazioaren mugak urratzen bal-din baditu, azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzen ez badu, larrialdi-egoera eragiten duten edo azpikontratazio hori premiazko egiten duten xehetasunak egiaztatzen ez baditu, SPKLn aurreikusitako beste batzuez gain, eta kontratua burutzeko orduan duen eraginaren arabera, ondorengo ondorio hauetakoren bat izango du:

El incumplimiento por el contratista de los límites de la subcontratación que, en su caso, se hayan establecido en los pliegos, o la no acreditación de la aptitud del subcontratista o de las circunstancias determinantes de la situación de emergencia o de las que hacen urgente la subcontratación, tendrá, entre otras previstas en la LCSP y en función de la repercusión en la ejecución del contrato, alguna de las siguientes consecuencias:

i. Adjudikaziodunari azpikontratuaren zenbatekoaren %50erainoko zigorra ezarriko zaio.

i. La imposición al adjudicatario de una penalidad de hasta un 50 % del importe del subcontrato.

ii. Kontratua suntsiaraztea, baldin eta karatulako **16. atalean** funtsezko kontratu- betebehartzat jo badira.

ii. La resolución del contrato, en el caso de que les haya atribuido carácter de obligación contractual esencial en el **apartado 16** de la carátula.

2. Kontratua partzialki betetzen ez bada, desegoki betetzen bada edo betetzeko orduan berandutza gertatzen bada, zigorrik aurreikusten den kasuetan edo, aurreikusi arren, Udalari eragindako kalteak estaltzen ez dituen kasuetan, kontratistari kalte-galeren kalteordaina eskatuko zaio.

2. En los supuestos de incumplimiento parcial, cumplimiento defectuoso o demora en la ejecución para los que no esté prevista penalidad o, estándolo, la misma no cubriera los daños causados al Ayuntamiento, ésta exigirá al contratista la indemnización por daños y perjuicios.

3. Zigorrak ezartzeak ez du baztertzen SPKLren 196. artikuluan araututako kalte-galerengatiko kalte-ordaina.

3. La imposición de penalidades no excluye la indemnización por daños y perjuicios regulada en el artículo 196 de la LCSP.

4. Berandutzagatiko zigorren zenbatekoa fakturetatik edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatutako beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean.

4. El importe de las penalidades por demora se deducirá de las facturas o certificaciones y, en su caso, de la garantía cuando no puedan deducirse de los mencio-nados documentos.

Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, gauzatzetik HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Cuando se hagan efectivas sobre la garantía, el contratista quedará obligado a reponer o ampliar la misma en el plazo de QUINCE (15) DÍAS NATURALES desde la ejecución, incurriendo, en caso contrario, en causa de resolución del contrato.

51. ZUINKETA EGIAZTATZEA

1. Kontratuan adierazten den epearen barruan – epe hori ezin izango da HILABETE (1) BAT baino luzeagoa izan, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita, justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, obren ardura duen udaleko zerbitzuak, kontratistaren aurrean, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du, eta emaitzaren akta egingo da. Akta hori bi alderdi interesatuek sinatuko dute, eta kontratuaren ale bat kontratua egin zuen organoari bidaliko zaio.

51. COMPROBACIÓN DEL REPLANTEO

1. Dentro del plazo que se señale en el contrato, que no podrá ser superior a UN (1) MES desde la fecha de su formalización salvo casos excepcionales justificados, el servicio del Ayuntamiento encargado de las obras procederá, en presencia del contratista, a efectuar la comprobación del replanteo hecho previamente a la licitación, extendiéndose acta del resultado que será firmada por ambas partes interesadas, remitiéndose un ejemplar de la misma al órgano que celebró el contrato.

Egiaztapen-aktak berariaz jaso beharko du APKLEO-ren 140. artikuluan xedatutakoa.

El acta de comprobación deberá recoger expresamente lo dispuesto en el artículo 140 del RGLCAP.

2. Egiaztapenaren emaitzak erakusten badu, zuzendaritza fakultatiboaren iritziz eta kontratistak erreserbarik egin gabe, proiektuaren bideragarritasuna eta lurren erabilgarritasuna, hark emango du proiektua hasteko baimena, eta egikaritzeko epea akta sinatu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen. Kontratistak, proiektuaren bideragarritasunari buruzko erreserbarik egin gabe, obraren exekuzioari eragin diezaioketen beste ohar batzuk egiten baditu, zuzendaritzak, ohar horiek aintzat hartuta, obraren hasiera hastea edo etetea erabakiko du, aktan bertan justifikatuta. Hasteko baimena berariaz jasoko da baimenean, eta kontratistari jakinarazitzat joko da haren sinadurarekin.

2. Si el resultado de la comprobación demuestra, a juicio de la dirección facultativa y sin reserva por parte de la contratista, la viabilidad del proyecto y la disponibilidad de los terrenos, se dará por aquella la autorización para su inicio, empezándose a contar el plazo de ejecución desde el día siguiente al de la firma del acta. En el caso de que la contratista, sin formular reservas sobre la viabilidad del proyecto, hubiera hecho otras observaciones que pudieran afetar a la ejecución de la obra, la dirección, consideradas tales observaciones, decidirá iniciar o suspender el comienzo de la misma, justificándolo en la propia acta. La autorización de inicio constará explícitamente en la misma, quedando notificada la contratista por el hecho de suscribirla.

Aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarrak egiaz-tatzen ez badira edo obraren zuzendaritza fakultatiboak beharrezkotzat jotzen badu proiektatutako obrak aldatzea, eten egingo da obren hasiera, eta aktan ja-soko da. Udalari berehala eman beharko zaio horren berri, eta hark bidezkoa dena ebatziko du. Aldatzeko prozedura APKLEOren 141. artikuluan aurreikusita-kora egokituko da, eta haren erregimena SPKLren 205. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

En aquellos casos en los que no resulten acreditadas las circunstancias a las que se refiere el párrafo anterior o la dirección facultativa de la obra considere necesaria la modificación de las obras proyectadas, quedará suspendida la iniciación de las mismas, haciéndolo constar en el acta, quedando obligada a dar cuenta inmediata al Ayuntamiento, que resolverá lo que proceda. El procedimiento de la modificación se ajustará a lo previsto en el artículo 141 del RGLCAP, siendo su régimen el previsto en el artículo 205 de la LCSP.

3. SPKLren 245. b) artikuluaren arabera, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da obren hasiera LAU (4) HILABETE baino gehiagoz etetea.

3. De conformidad con el artículo 245 b) de la LCSP será causa de resolución del contrato la suspensión de la iniciación de las obras por plazo superior a CUATRO (4) MESES.

